

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Bernardo Altuna Telleria*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1932-2012)*

Aurkibidea



## Biografia



Donostiako Añorga auzoan jaio zen, Unanue etxean. Baina Errotazar baserrian bizi izan zen; ama bertakoa zen, eta aita Amezketakoa. Zazpi senide ziren. Añorgatikiko eskolan ibili zen batxilergoa egin arte. Gero, lorazain hasi zen Rezola lantegiko lurretan. Itzain ere ibili zen zementu lantegiko Harrobieta harrobian, 17 urterekin. Rezolan jardun zuen erretiroa hartu arte, lehenengo harrobian bertan eta gero tailerrean, mantenimendu arduradun. Añorgako Bidarte baserriko alaba batekin ezkondu zen, eta hiru seme izan zituzten.

## Zintak

### DON-099

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-26
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

## Pasarteak

### 1. Unanuen jaio, eta Errotazarren bizi

- **Erref:** DON-099/002
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:21. **Bukatu:** 00:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

#### Laburpena:

Unanue etxean jaio zen, Añorgan. Gero Errotazarrera joan ziren bizitzera. 41 urte bete arte egon zen han. Rezolan egiten zuten lana. Errotazar nolakoa zen. Zazpi senide dira. Ama Errotazarrekoa zen, aita Amezketakoa. Zakuekin egiten zuen lana aitak, Rezolan. Zakuak nola betetzen eta garraiatzen zituzten lehen, eta orain nola egiten den.



## Transkripzioa

-Eta zuk orduan ondo jakingo dezu harrobiko lana zein dan.

-Bai, biharko. Ikasi gendun.

-Nola... zenbat jende zeon harrobiyan lanian?

-Hemen... hemen ibilliko giñan hamabost bat laun garai batian, hamabost o gehiyo igual. Eta Andoaiñen gehiyo, berriz, zeatik Andoaiñen eskuz kargatzen zan, bolara batian. Geo han jarri zizuzen aurrerapenak, baiño lehenbizi... bagoiyak´e han gaiñea eskuz ibiltzen zituzten, bultzaka, ta hemen ez, hemen idiyakin. Bai.

-Eta..

-Geo hara, honea baiño leheno hara automobil batzuk ekarri zituen, automobil koxkor batzuk, bolkete batzuk. Ta geo haiyek, han haundiguak nola bihar zian, produkziyua haundigua zalako, txiki haik honea ekarri eta hara haundik ekarri zituzten.

-Bolketiak?

-Bai.

-Eta aurretik, e... arroka bereixteko edo... nola? Ze erabiltzen zan? Dinamitakin ta?

-Bai, bai, dinamitakin ateatzen zan dena, bai. Oso... ordun zea zulatzen zan, maillu txiki batzuk zian perforadorak, eta eskuz iten zan. Geo, geo etorri zian automatiko zea hauk, perforadora haundi hoik. Kabinakin ta... hok, hok gauza txukunak dia, haiyen aldian!

-Ta zenbat, ze distantziara iten zian zuluak?

-Metro batea o hola izaten zian. Metro batea, hortxe nonbaitte.

-Eta esan dezu zulatzeko, perforadorak?

-Bai.

-Eta nola funtzionatzen...?

-Haiziakin!

-Haiziakin? Haizezko...

-Bai, bai, konpresore haundi bat zeon, ta harrobi guztiyan zeon instalaziyua jarriya, ta tomak.

-Eta zuk beti ezautu dezu dinamitakin?

-Bai, beti, bai.

-Eta ze iten zan, gero zuluan polbora sartu?

-Bai, kartutxuak izaten zian. Kartutxua sartu, geo pistoi bat, metxakin, sutu ta benga!

-Ta metxa erosi iten zan ala...?

-Bai, bai, hoi dana zeatik etortzen zan, Galdakanotik etortzen zan.

-Galdakanotik?

-Bai.

-Eta hori peligrsua izango zan ba, metxai sua emateko orduan, e, abixurik edo egoten zan?

-Bai, iten zan...

-Emaztea: Korneta.

-Eiten gendun e... metxa bat neurri batekua jartzen zan zuluan eta hua baiño motxagua iten zan listoi batekin sutu ta bota, bota, eta gu takua pixten aitzen giñan iya danok, ta hua, hua lertzen zanian, motx hua, denok erretiatzen giñan, zeatik bestiak beti luzegua izaten zuten metxa.

-Aaa, hori seiñalia, orduan, erretiratzeko.

-Bai, bai. Hor ardura haundiya bihar zan, bai.

-Eta zenbat e... zenbat su-edo piztu bihar zian? Zenbat metxa?

-Takuak ehun igual.

-Ehun?

-Bai, ehun, ehun ta berrogeita hamar, berrehun igual... bai. Asko, asko zeatzen zian.

-Orduan e harri haundiyak, bloke haundiyak irtengo zian hortik.  
 -Bai. Tiro haundiyakin bloke haundiya ateatzen zan, ta geo dana hua iten zan takeatu. Takeatzia esaten zitzaiyon, bakoitzai, harri bakoitzai zulo bana jarri, ein, ta [...] kartutxo erdi bat edo "según" ze harri zan! Haundiya baldin bazan kartutxo osua, o kartutxo ta erdi o bi kartutxo´re bai.  
 -Orduan blokia gero berriz txikitzeke, berdin?  
 -Bai, berdin iten zaiyon.  
 -Sistema berdiña, ta distantzia zuluena artekoa?  
 -Ba harri bakoitzai bat iten zitzaiyon.  
 -Bat?  
 -Bai, behin libre zeon harriyai zulo bat bakarra.  
 -Eta zulo batekin ya bitan iten zan, bi zati?  
 -Bai, bai. Bi zati o hamar igual. Bai.  
 -Eta hola zenbat aldiz? Ze tamaiña lortu arte?  
 -Nik ez dakit ba ze tamaiña izango zuen, ehun bat kiloko harrik o gehixeo igual.  
 -Eta hoiekin ze iten zan?  
 -Hoiekin? Porlana. Geo hoi kargatzen zan makinakin, ta...  
 -Ehun kiloko harriak?  
 -Bai.  
 -Bagoitan?  
 -Bai, bai, ehun ta... haundina ehun, hoixe izaten zan, haundigua ez.

## 5. Rezola: harria porlan bihurtzen

- **Erref:** DON-099/010
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:16:34. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Etxeginak

### Laburpena:

Matxakan sartzen ziren harriak, eta gero matxaka txikietan hauts bihurtzen ziren. Labean urtu egiten zen bi harri moten hautsa, porlana egiteko. "Klinkerra". Egosteko modua. Errotetan xehatu ondoren, porlana egina zegoen: zakuetara. Labea ikatzarekin batez ere, errotan xehatuta. Porlana nora eramaten zuten.

### Transkripzioa

-Geo han bai, han matxaka haundiya zeon Andoaiñen, ta han, han beti zeagua izaten zan, harri larrigua.  
 -Eta matxaka zer da? Nolako makina?  
 -Hua zan tanbor bat bezela, koraza-ta batekin, ta mailluk izaten zitun. Eta korazan kontra... hua bueltaka ai dala korazan kontra hausten zun harriya.  
 -Eta holako harri haundiyak bai, e, ehun kilokuak eta?  
 -Bai, bai, bai, bai.  
 -Orduan makina haundiya izango zan...  
 -Bai, bai, hoixe haundiya!  
 -Eta ze juten zan, txikitzen-txikitzen... eta harri koxkorak in arte ala...?  
 -Bai, bai. Koskor iña ateatzen zan.

-Ze tamaiñatakuak?

-Ez dakit ba ze neurri izango zun... hamar zentimetro o haundinak. Ta geo hemen zeon beste ma... fabrikan barrun zeon beste matxaka txikigo bat, eta haustu hor iten zan. Hautsa.

-Eta gero...

-Geo handik ya juten zan silota, ta silotatik labea. Ta labian iten zan urtu, porlana itteko.

-Eta ordurako ya nahastuta egoten zian bi harriyak?

-Bai, bai, bai. Biyak nahasten zian han.

-Biyak nahastu eta gero, esan dezu, urtu?

-Ur, urtu iten zan... hoi, labea sartzen zan hautsa, eta beotuz-beotuz urtzeaiño iten zan. Bai.

-Eta behin urtuta?

-Garai batian koxkorra sartzen zan, koxkorra, klinkerra esaten zaiyo harri. Eta iten zan kanpotikan barrenean eosten zan, ta oan, berriz, alderantziz: barrendik o, bai, barrendik kanpoa. Ta koxkorra bertan itten da, labian barrun. Lehen kanpua iten zana...

-Eta gero behin urtuta-eta ze... nola iten zan porlana?

-Ba hua juten zan depositu batea, ta geo berriz´e zeera, erroteta. Ta errotan zeatzen zan hua berriz. Ta behin zetu ezkeo ya porlana zan hua.

-Ta geo zakutara.

-Bai.

-Eta labia-eta, e... horrek nola funtzionatzen zun? Iketzakin?

-Iketzakin, bai, iketza. Oain´e iketzakin ibiltzen da. Iketza ta gauza askokin ibiltzen da oain. Oain zikinkeia asko sartzen da hor.

-Eta lehen, iketza?

-Lehen, iketza ta garai batian fluoilla ere bai. Fluoillakin´e ibili zan, baiña hua garestiya zan ta iketzakin hasi zian berriro. Ta iketza iten da xehe-xehe ein, ta errota txiki bat do, eta hua ere zea batekin, eee... inyektore bat daka, ta harek sartzen du indarrian haiziakin batea. Labea sartzen dan bezela sua hartzen du, ta juten da beotzen.

-Baiña lehen ez zan hola izango.

-Bai, tankera hortan, bai, bai.

-A, bai? Beti antzeko?

-Ta beste sistema bat´e bazan harriya ta iketza ta danak batea botatzen ziana. Oain ez, oain harriya etortzen da ixkin batetik eta sua bestetik do sartuba.

-Eta iketza nundik ekartzen zan?

-Ba Afrikatik lehen, geo Rusitik uste det ekartzen zuela. Ta toki askotatikan, bai.

-Eta ze... Donostiko kaira iristen zan?

-Bai, e, zeera: oain´e Pasaira ekartzen dute.

-Pasaira.

-Bai.

-Eta lehen Donostiara ere iristen zan, ez?

-Donostiatik ez nun ikusi nik zeik, iketza ekartzen. Porlana kargatzen bai. Bi barku txiki bazituen, ta zea, Galizi aldean ta eamaten zuten, ta zeera´re bai, uste det Kanariasera´e eamaten zuela porlana hemendikan.

## 6. Rezolako etxeak eta langileak

- **Erref:** DON-099/012
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:20:42. **Bukatu:** 00:23:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

**Laburpena:**

Lorazain ibili zen, baina denbora gutxian, Rezolan. Auzoa txukun egoten zen, baina lantegia narras samar, hautsez beteta. 200dik gora langile zeuden. Rezolak etxe mordoxka egin zituen langileentzat. Nafar asko joan zen lanera. Arroako lantegia ixtean, handik ere etorri langileak.

**7. Rezolako nagusia, ekonomatoa eta Jolas Etxea**

- **Erref:** DON-099/013
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:23:49. **Bukatu:** 00:26:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena:**

Rezolako nagusiak bazter guztiak begiratzan zituen egunero. Añorgan jaioa zen. Ekonomatoa zegoen, eta harategia. Jolas Etxean zinema aretoa ere bazegoen.

**8. Jolas etxeko dantza eta antzerkia**

- **Erref:** DON-099/014
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:26:46. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena:**

Dantza taldea ere bazegoen Jolas Etxean. Bera ez zen ibili, baina anai-arrebak bai. Jose Basurto, Pujana, Mendiolatarrak... izan ziren irakasle. Antzerkia. Otxotea ere bazegoen, Ebaristo Aiestaran eta.

**9. Añorgako kirol zaletasuna**

- **Erref:** DON-099/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena:**

Kirolak. Futbola, korrika, pilota, bolatokia, toka... Tiroan ere ibiltzen ziren, 22ko

karabinekin. Festetan izaten zen. Anai bat txirrinduan ibili zen, bera ez. Lasterketak egiten ziren, baina bertan. Futbol zelaia 1949an inauguratu zuten, bera lanean hasi zen urtean.

## 10. Errepidean auto gutxi

- **Erref:** DON-099/016
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:31:02. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

### Laburpena:

<p>Futbol zelaia egin aurretik, errepidean aritzen ziren. "Montadilla" egiten zioten tranbiari. Trena ez zuten asko erabiltzen, ez baitzen Errekalden geratzen. Donostiara tranbian hobeto.</p>

## 11. Umetako lanak eta ibilerak

- **Erref:** DON-099/017
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:35:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

### Laburpena:

<p>Behi pare zuten etxean. Esnea saldu ere egiten zuten. Baratzekoa etxerako izan ohi zen. Mutikotan egin beharreko lanak. Eskuz dena. Mendira joaten ziren, baina inguruan. Kilker bila eta txori-habiatan. Zozoa, birigarroa... kaiolan jartzeko. Putzu batean bainatzen ziren, Ondarretako hondartzan ere bai. Lagun kuadrillan joaten ziren. Izozkia erosten zuten Miramarren. Bainujantziak alokatu egiten zituzten.</p>

## 12. Umetako jolasak: mandoketan

- **Erref:** DON-099/018
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:35:44. **Bukatu:** 00:36:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

### Laburpena:

Jolas batzuetan neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren: gordeketan, mandoketan... Frontoia beti izan da Añorgan. Eskola egiteko kendu zuten, berria eginda.

### 13. Añorgako festak

- **Erref:** DON-099/019
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

#### Laburpena:

<p>Urteko egunik berezienak, Karmenak, A&ntilde;orgako festak. Zezenak, pilota partidak... Jolas Etxean pilota txapelketa egiten zen. I&ntilde;aki Eizmendi <em>Basarri</em> eta Manuel Olaizola <em>Uztapide</em> bertsolariak. Orixe Saria Aranaldek sortu zuen. Herri-kirolak. Bolatokiko kontuak.</p>

### 14. Sagardotegietako eta tabernetako giroa

- **Erref:** DON-099/020
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

#### Laburpena:

Sagardotegia. Basoka edaten zen, barrika amaitu arte. Txotxean. Igandetean joaten ziren. Tabernara iluntzean ere joaten ziren, lanetik irtetean. Karta jokoa: musa eta tutea. Toka jokoa nolakoa den.

### 15. Hernanira dantzara

- **Erref:** DON-099/021
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:43:05. **Bukatu:** 00:44:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

#### Laburpena:

Irubidera joaten ziren dantzara, oinez. Lasartera eta Hernanira ere bai. Hernanin banda egoten zen, eta Irubiden soinua. Dantza lotua libre zen. Etxe laguntza.

### 16. Elizaren indarra

- **Erref:** DON-099/022
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:44:43. **Bukatu:** 00:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

Elizarekin izan duen harremana. Jaiero mezetara, 06:00etan. Dotrina. Don Juan, Don Frantzizko... Dena erdaraz, eskola eta dotrina. Euskaraz etxean. Luistarren kongregaziokoa izan zen. Misiokak, Arantzazuko fraideekin. Batzuk beldurra sartzen ibiltzen ziren. Dena bekatu.

**17. Medikuak, gaixotasunak eta jaiotzak**

- **Erref:** DON-099/023
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:50:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

**Laburpena:**

Medikuak. Rezolan bazegoen bat, Joxe Almandoz. Don Jose Olano baserrietan ibiltzen zen, eta Irigoien Hernanitik etortzen zen. Autoan ibiltzen ziren. Amona partera zen, amaren ama; ilobak Errotazarrera joaten ziren ama izatera. Paristik ei zetozen umeak.

**18. Sendabelarrak**

- **Erref:** DON-099/028
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:52:28. **Bukatu:** 00:54:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Natura » Meteorologia

**Laburpena:**

Sendabelarrak. Berdena, pasmo belarra... zauriak sendatzeko. Enplastoak, ura... Baratxuria, ospelak kentzeko. Eskularrurik ez zegoen. Txapela mutil koskorretatik erabili du. Gazteek ez, baina adinekoek gehienek zuten.

**19. Kantu eskean eta oilasko biltzen**

- **Erref:** DON-099/029
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:54:11. **Bukatu:** 00:56:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

**Laburpena:**

<p>San Jua ia etxero egiten zen, eta auzoan su handia. Kantatzen zen, baina gutxi. Eskean, Eguberrietan, Santa Ageda egunean ere bai. Oilasko biltzen ere ibiltzen ziren.</p>

## 20. Etxeko otoitzak eta ohiturak

- **Erref:** DON-099/030
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:56:11. **Bukatu:** 00:58:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

### Laburpena:

<p>Etxean arrosarioa erreztatzen zuten, iluntzean. Ez zuten ez irratirik ez telebistarik. Ur bedeinkatua eta kandelak. Erramuarekin gurutzeta egin, eta baratzean jarri; erre ere egiten zen, ekaitz egunetan. San Juan bezperan lizarra, ate sarreretan. Ogia eta haziak San Blas egunean bedeinkatzen ziren.</p>

## 21. Estraperloa, gose garaian

- **Erref:** DON-099/031
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:58:51. **Bukatu:** 01:02:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

<p>Gose garaiko ogia, txarra. Estraperloa: olio, irina... Diruarekin ere ezin erosi. Txerria ezkutuan hiltzen. Aitak hiltzen zuen, beraiek lagunduta. Gazi kutxa. Txerriaren puskak. Gose garaian, baba handia beratzen jarri, eta esnearekin egosita jaten zuten.</p>

## 22. Felipe astoa eta arrain saltzaileak

- **Erref:** DON-099/032
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:02:18. **Bukatu:** 01:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

Animaliei belarra ematen zieten jaten, eta azpiak garoarekin. Ongarria. Asto-karroa. Felipe astoa. Donostiara gutxi joaten ziren erostera; arraina ere etxera ekartzen zuten emakumeek, tranbian.

## 23. Bainuak, labaderoak eta dutxak

- **Erref:** DON-099/034
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:04:34. **Bukatu:** 01:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

**Laburpena:**

Dutxarik ez zegoen etxeetan. Barreñoan ura jarri, eltzean berotuta. Errekara ere joaten ziren garbitzera. Arropa garbitzera ere bai. Labaderoak ere bazeuden. Dutxa publikoetara asteburuetan joaten ziren, etxetik toalla eta xaboia hartuta.

**24. Añorgan, gehiena euskaldunak**

- **Erref:** DON-099/035
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:06:58. **Bukatu:** 01:09:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena:**

<p>Kanpotarrak gerra ondoren hasi ziren etortzen. Bertako jendea euskalduna zen gehiena, baina kalean erdaraz egiten zen. Desfilerik ez zen izaten. Irunen egin zuen soldadutza; astero etortzen zen etxera. Amuarrainak eskuz harrapatzen zituzten, errekan. Karramarroak.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-07*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com